

## HAUR DANBORRADA DELA-ETA, URTARRILAREN 20AN HAINBAT ALDAKETA IZANGO DIRA HERRI GARRAIOAN

Danborradak egiten duen ibilbidea dela-eta, hiriaren erdialdeko zati handi batean zirkulazioa moztu behar da. 10:00etatik 15:00ak arte, urtarrilak 20. Bulebarra eta Okendo kaleak garraio mota guztientzako itxiko dira; Republica Argentina kalea ohiko sentiduren kontra jarriko da, eta kale horretatik bakarrik garraio publikoentzako izango da. Horretaz gain, Okendo, Santa Catalina eta Camino kaleak itxiko dira trafiko guztientzako, danborradan parte hartzen duten umeen autobusentzako ezik. Horregatik, autobuseko linea guztiak atera behar dira kale honetatik 10:00ak baino lehen. Danborradak bere ibilbidean hartzen dituen gainontzeko kaleak 10:30etik 14:30era itxiko dira (Hernani, Urbieta, Prim, Bergara, Idiakez, Gipuzkoa plaza).

Okendo Parkigneko erabiltzaileek ezin izango dute Okendo kaletik atera, Republica Argentinatik Groseruntz aterako dira.

**Easo** kalean San Martin eta Mendeurrenaren kale artean errei bat norazkoa aldatuko da, mendebaldeko autobusak (Amara, Loiola, Ospitaleak, Martutene, Hernani, e.a.) hiriaren erdialdean sartu ahal izateko. Autobus eta taxiak Easo kaleko bus-erreitik sartu ahal izango dira. Amara aldera ere, Easo kaletik joango dira; hortaz, Easo kaleak bi noranzko izango ditu herri garraioko ibilgailuetarako. Autobusek **San Martinen eta Mendeurrenaren plazaren artean dagoen erreia** hartuko dute eta, gero, Antso Jakitunaren hiribidetik jarraituko dute, ohi bezala. Amara Zaharretik zein Aldapetatik datozen ibilgailuek Amarara joan beharko dute, nahitaez, Easo kaletik. Ibilgailu partikularrak ezin izango dira Easo kalera sartu Amaratik.

### **ALDAKETAK AUTOBUSEN IBILBIDEETAN**

#### Mendebaldekoak.

San Martin kalea Easo kalearekin gurutzatzen den tokitik egongo da zirkulazioari itxita. Autobusek Easo kaletik joan beharko dute, Zubietan bira egin eta bere ohiko bideak hartuko dute.

Mendebaldeko linea guztiek Zubieta kalean izango dute geralekua.

Askatasun hiribideko geralekuak, TssT eta UK lineen, ez du zerbitzurik izango. TssTk Zubieta kalean geldialdia egingo du eta UK lineek Federico Garcia Lorca 2an.

#### Hegoaldekoak.

Hegoaldeko lineek (DBUSEkoek) San Martin kalean Epaitegietan izango dute geralekua.

G1. Hernani (Galarretatik). San Martín-Manterola kalean izango da geldialdia eta.

A1. Hernani (Astigarragatik) Federico Garcia Lorca 2 Autobusen geltokian izango da.



## Ekialdekoak

Ekialdeeko DBUS linea guztiak Zurriolatik iritsiko dira eta Kursaal zubia gurutzatu ondoren, República Argentinan sartuko dira eta han izango dute geltokia.

Ekialdebus lineak ez dira zubia pasako. Mirakruz kalean egondo da bere geralekua. E21 aeroportorako linea Federico Garcia Lorca 2an geldituko da.

## **Beste ibilbide batzuk**

Grosetik, Amara, Aiete edo Antiguaruntz joateko, Frantzia Pasealekua ibiliko dira eta Mundaiz edo Lehendakari Agirre zubitik bere ibilbideruntz abiatuko dira.

Gero Groseruntz joateko Easo kaletik joan beharko dira Pio XIIraino eta handik Bizkaia Pasealekutik. Askatsun hiribidea 3an izango dute geralekua.

## **ALDAKETAK TAXI ZERBITZUAREN GERALEKUAN**

Hiriaren erdigunean egingo diren aldaketak direla-eta, zenbait taxi geraleku ere aldatu beharko dira. Danborrada egin bitartean, Bulebarreko, eta Askatasun hiribideko. Taxiak Askatasun hiribideko Santa Catalina eta Okendo kale artean geldialdia ahal izango dira .

Donostian, 2019ko urtarrilaren 15ean.